



ZESTOAKO UDALA

AKTA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko ekainaren 16n buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Zestoako udaletxean, bi mila eta hogeiko ekainaren hamaseian, Mikel Arregi Urrutia Alkate jauna mahaiburu delarik, Ruben Alberdi Uranga, Nerea Odriozola Larrañaga eta Garikoitz Mendizabal Etxeberria korporakideak bildu dira.

Idazkari lanetan, Ander Cestona Unanue jauna, Udaleko Idazkari-Kontuhartzailea aritzen da.

1.- INSTANTZIAK.- 2020ko ekainaren 16an egindako Hirigintza eta Pertsonaleko Batzordean aztertutakoak:

1.1) Ura Ur Agentziak, Arroa Goiko auzotik egindako isurketen inguruko idatzia igortzen du.

Tokiko Gobernu Batzarrak ondorengo erabakiak hartu ditu,

Erref: DNV-G-2020-0044

GAIA: Arroa Goikoa auzotik egindako isurketak. Zestoako Udalerria.

2020 urtean zehar, Arroa Goia auzotik Iraeta auzorako aztertu gabeko saneamendu sistemaren zatia aztertuko da. Aurrekontuak eskatuko dira eta beharrezkoa bada proiektua burutuko da. 2020an azterketa egin ondoren, 2021-2022 urteetan aurrekontu partidak jasoko dira obra horiek gauzatzeko.

Erref: DNV-G-2019-0044

GAIA: Izan Fundazioko eraikineko garbitegi eremuko eta Lasao auzoko isurketak.

2020 urtean zehar, Lasao auzoa eta Izan fundazioko guneen saneamenduaren egoera aztertuko da. Aurrekontuak eskatuko dira eta beharrezkoa bada, proiektua burutuko da. 2020an azterketa egin ondoren, 20201-2022 urteetan aurrekontu partidak jasoko dira obra horiek gauzatzeko.

1.2) M^oC.A.I. eta B.A.k, herri ikastetxearen ondoko lurren inguruko idatzia aurkezte dute.

Tokiko Gobernu Batzarrak ondorengo erabakiak hartu ditu,

Lehena.- Udala prest dago proposamenak aztertzeko. Gogoraraziz, momentu honetan, Hirigintza Antolamenduaren Plan Orokorren Aurrerakina jendaurrean dagoela eta momentu egokia dela proposamenak egiteko.

Bigarrena.- Eskolarako sarrerari dagokionez, eskola egin zeneko espedientea aztertu eta garai artako arduradun politikoekin kontsulta egin da.

Hirugarrena.- 23. poligonoko 24. partzelaren jabeek ipar alderago dituzten ondasunetara igaro ahal izateko Udal lur sailetik paso bat egokitzeko aukeraz hitz egiteko prest dago Udala.

Laugarrena.- Udala harremanetan jarriko da eskatzaileekin bilera eguna zehazteko.

1.3) 631 errepidea, sarrera irteerak.

ENDARA lantzen ari den proposamenaren zirriborroaren berri eman da.

1.4) I.S.A., Zubimusu kalea 1 5.ezkerra etxebizitzan eraberritze lanak (elektrizitate lanak, iturgintza lanak eta dutxa jartzea) egiteko obretako udal baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

1.5) I.A.E., Santakurutz kalea 19 etxebizitzako bainugelan bainuontzia kendu eta dutxa jartzeko obretako udal baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

1.6) R.A.U., Gesalaga kalea 5 3.ezkerra etxebizitzan hiru lehio eta ate bat aldatzeko obretako udal baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

1.7) C.E.P.k, Artzubiaga Kalean, euri urak bideratzeko estolda-zuloa dago, eta urbideak kalea zeharkatzen du lur azpitik. Zuloa dagoen lekua zikinkeriaz beteta dago, eta zuloa bera ere zikinkeriaz beteta dago.

- Artzubiaga kalean baita ere, kalearen alde batean harriz egindako horma bat dago, gain aldean baratza bat duena (errepide aldera gelditzen dena). Horma horrek urte asko ditu, eta denborarekin hondatzen joan da. Ondorioz, baratzeko zikinkeria eta hainbat objektu erortzen dira kalera.

- Artzubiaga kalearen ondoan dagoen baratzean argindarraren kablea ikutzera iristen den zuhaitz bat dago.

Eskatzaileari erantzun aurretik, eginiko eskaeren inguruko azterketa bat egingo da.

1.8) L.A.A., Arteaga auzunea 14 1.eskubia etxebizitzan eraberritze lanak (sukaldea eta etxebizitzako zorua) egiteko obretako udal baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

1.9) C.A.O., Gurutzeaga kalea 1 3A etxebizitzan gasaren instalakuntza lanak egiteko obretako udal baimena erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

1.10) M.Z.A., Bidezarra 2 eraikineko EITa egiterakoan, sotoan, egurrezko eraikinaren egituraren, termitaren arazoa azaldu zela azaltzen du. Kata batzuk egin ondoren, 2 zutabe aldatzea premiazkoa zela eta, horiek konpontzeko obretako udal baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

1.11) M.E.k, Akuan arketa bat garbitzeko eskaera. Aurreko asteburuan, Akua auzoko bide bazterren garbiketa egin zen, horrekin batera arketak ere garbitu ziren, bat izan ezik. Ahalegin guztiak egin zituzten, baina ez zen lortu garbitzea. Udala brigadako langileek garbituko dute aipaturiko arketa.

1.12) M.U.I.k, Udala Iraeta frontoia konpontzen ari dela eta, Iraeta denon artean auzo elkartearen izenean, obra aprobetxatuz frontisaren eskuin aldeko zatia ixteko (metrakilato edo burni batzuekin edo...) eskaera egiten dute. Udala jakitun da arazo bat dagoela frontiseko zati horrekin. Horrela, ahal denean irtenbide bat emango zaio

1.13)Aizarnako Guraso Elkarteak, kurtso amaierako festarako material eskaera.

Materiala ematea erabaki da, segurtasun neurriak hartu behar direla gogoraraziaz.

1.14) Balkoien ordenantza, martxan jartzea aztertuko da.

Covid-19ak sortu duen egoeraren ondorioz, balkoiei buruzko kontsultak ugaritu egin dira. Balkoien baldintzak arautuko dituen ordenantza bat lantzea egoki ikusi da.

1.15) Etxez-etxeko laguntzaileen oposaketetako oinarriak

Oinarriak onartzea ontzat eman da.

2.- BATZORDE INFORMATIBOETAKO AKTAK.

- 2020ko maiatzaren 13an Gizarte Harremanak eta Parekidetasun Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.
- 2020ko ekainaren 1ean Euskara, Hezkuntza eta Komunikazioa Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.

3.- ALKATETZA EBAZPENAK.- Honako ebazpenen berri eman da:

- 212: Sansineneako Konpentsazio Juntari Progutitan S.A.ri enbargaturiko diru-kopuruaren itzulketa
- 213: Hainbat dokumentazio aurkezteko errekerimentua Tecuni S.A. argiteriaren enpresari
- 214: Langileen koordinatzailearen haurdunaldi arrisku bajako ordezkapena egiteko izendapena I.M.J.ri.
- 215: Udal jabetzako bidea edo pista erabilera bereziaren baimena L.M.E.U.ri
- 216: Etxez etxeko 3 laguntzaile oposaketak abiarazteko dekretua.
- 217: Agustin tabernaren kanpoaldean telebista jartzeko baimena
- 218: Gesalaga kalea 1 3C etxebizitzan obrak egiteko udal baimena M.P.K.i
- 219: Bidezarra 2 behea ezkerre etxebizitzan obrak egiteko udal baimena D.A.A.i.
- 220: Olaberribideko Olaberri pabiloiko teilatua eraberritzeko obretako udal baimena A.M.H.i.
- 221: Dirubiltzaileak proposatutako itzulketak egitea
- 222: Aizarnako Irabidebekoa lursailean borda egiteko udal baimena A.A.U.i.
- 223: COVID-19-ak eragindako egoera arintzeko, Udal diru laguntzak emateko urgentziazko deialdiaren behin betiko ebazpena

4.- ELKARRERANTZUN OFIZIALAK

Ez dago.

5.- GALDERA ETA ERREGUAK.

Ez dago.

Eta gai gehiago ez dagoenez, bukatutzat ematen da saioa eguerdik ordubiak eta bederatzi direnean, nik neuk, Idazkariak, ziurtatzen dudalarik.

Ander Cestona Unanue,
Idazkaria

O.e.

Alkateak,

